


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

261n. zenbakia
jorria 2001



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**GAURKO LEKAIDEAK
ZIORTZA**

EUSKALERRIA ARANA' TAR SABINOBAINO LENAGO

Ao betez esaten dabe Espainan PP'ko billakariak (inquisidores), Euskalerrriak sekula ez daukala euki ainbesteko askatasunik, ezereen lotsa-barik. Eta baleiteke arrazoi pizka bat eukitea, jakiten ez danak ez daualako bizitasunik euki, edo sekula ez dala gertatu egin. Orregaitik ain ondo gorde dabez 1 Napoleonen denborakuak, onek euki ebazan asmoak Euskalerrriari buruz eta zeintzuk izan ziran orduko gertakizunak, baita zer esan gura daben orduko eta betiko jakinean: "EUSKALERRIA BETI BIZI IZAN DALA BERE GOGOAN ASKATASUN OSOAN"; naita beste gauza bat izan, menperatzaileen gogoak zeintzuk diran euren asmakizunetan: "danez gain, gure daben sasi-jainkotasuna agertu naian".

Guzti au agertu zan Latxaga'ri itandu neutsonean: Euskalerrriak nolako jokabidea euki eban Napoleon'en denboretan. Bere-ala joan zan daukan liburutegira eta Auñamendi'ko "Enciclopedia General del País Vasco"tik irakurri eban "EUSKALERRIA 1 NAPOLEON'en ERABERRITZE EGITAMUTAN (planes)" (larogeta laugarren orrialdean datorrena): "Bonaparte, Frantzi'ko iraultzaren oiñordeko" eta iraultza sendotu ebana, bai gizon jakintsuak erri-txikerraren askatasunagaitik euki eben maitasuna edo begi-onagaz ikusten ebazanaz be oiñordetu zan; "berak Europa, diran erri guztien askatasunagaz ikusten ebalako osotuta, Mendebaleko Kaizar-gobernu (imperio occidental) baten Lurralde-lez"; baita Euskal-izkuntza'ren edertasuna begi-onagaz ikusten ebalako. Arrituta geratu nintzen, eta burura galdera asko agertu jatazan batera:

Leenengoa.— Europa'ren goi-mallako ulermenean danak jakin ebelako Euskalerrria berezitasunezkoa zala, eta orregaitik bere jaurkintza bear ebala eskurakoi (governable) izateko eta bakez bizitzeko.

Bigarrena.— Argi ikusten dana dala, Europa'ko erregetasun guztiak erri berezitasunaren Nortasunak kontuan euki barik lan egiten chela, eta batez be Euskalerrriari V'garren Felipe borboiak 1701'tik aurrerantza, naita gure Foruen eskubideari, lotsagizunez zainduko ebala esan.

Iruigarrena.— Ortik aurrera eta Karlisten borroka gogorak kontuan eukinda, Erriak ez ebala tutik ere jakin, zer esan gura eban Foruen ezaugarriak. Eta orren ondorioagaitik nota Arana'tar Koldobikak Bartzelona'n ikasten egoala, lekaide baten bidez jakin ebazan zaintzuk ziran Euskalerrriaren eskubideak, beren anaia Arana'tar Sabino jakinean kokatzeko. Baita Sabino bera errien ariak artu ebazanean, nola egon zan Erria Nortasunezko azken

arnasetan; eta nola gure Euskalerrri maite au, leize-zulotik (abismo) igon eben Sabino'k emon eutsozan beren osasunerako aize berriak. Nola denbora gutxian indartu zan Nortasunaren gogoak berriztu jakozanean, gaur zendotzen ari garana, naita egiten doguna ez ainbestekorik izan, gaur daukaguzan arrazoi-bako edo ganoragabeko eritziak, dana irentsitateko (consumismo) prest agertzen garalako, eta egoera orrek JAINKOA'ren argia illundu egiten daualako, gure lotsagizunezko ardura nagusian, arrazoi berezia dana ikusteko. JAINKOA'k Berak ere eta Beren Legeaz erakutsiten dausku mugak nun dagozan, berezitasuna edo Beren agindua lapurtzen dogunean, or! agertzen diralako ordain bearrezko sida, bei-erotuak, ozonoan zilloak, errekek eta bai itsasoa ia utsik eta guztiz zikinduta, eta abar. Benetan erakutsi egiten dabela: "Bera dala menperatzaile bakarra" eta gu, Ludi ontako gizon/emakumeok Beren Legean jarraitzeko guztiz arduradunak garala, bata bestea baiño geiago ez dan tokian gaudelako, danak arduradun nor beren maillan izateko.

Itaun guzti onein artetik, berez ikusten da jakintzaren bidegaz arduratu egin bear garela, berak! arrazoi berezian kokatzen daualako oker guztiak danon indar berezi orregaz, menperatzaileen arrazoi zikiñak ibili barik, Euskalerrriaren diztira Mundu ontako giza-seme/alaba guztiak ikusi dagien. Or! gure askatasuna lortzeko arrazoi-bidea.

Latxagak esan eustan, or euki genuela pare-gabeko aukera erri-lez askatasuna lortzeko, eta guk Napoleonen aurka jokatu gendula jakiñaren eza gaitik.

Olazar'tar Martinek beste aldetik: itzaldi eder bat antolatzeko or neukala ikas-gaia; Euskalerrria arrazoizko jakintzarekin jazteko. Nik baietza emon neutson eta nire ardura guztiaz egingo nebala, Euskalerrriaren berezitasun dizdiratsuari laguntzeko, "ERRIA ARG!" erri guztien artean agertu daiten.

ATUTXA'tar Paul
Zornotzan 2001'ean Otsailla'ren 9'an



ALDI ZKARI ONEK
BI ZKAI'KO FORU-ALDUNDI AREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

NONDIK GATÓZ? / NORA GOAZ?

Auteskunde-girora sartzen gara eta egokiak doguz idazpuru lez ezarri doguzan itaun bi oneik.

Euskalerrriak aldi baten askatasun osoa eukan, eskualde bakoitxak bere buruaren jabetasuna eta bere lege zarrak eukazala. Baiña eskubide orreik urteen joanean kentzen joan jakuzan inguruko laterri aundiagoak eta azkenean lege zarra edo foruak gelditu jakuzan. Oneik be kendu egin euskuezan eta gure erria menperatuta eukitea

nai eben. Ez eben lortu ori, zorionez Arana'tar Sabin agertu zalako eta onek aldarrikatu eban gure aberria Euzkadi dala. Geroago langilleen munduari be begiratu jakon eta Ela sortu zan.

Atzean geratu ziran foruzale agertzen ziran eta aldakuntzarik nai ez eben karlistak españatarraz bat eginda. Giro orretatik sortuak dira Iturgaitz, Mayor Oreja ta ola-koak.

Di

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebahi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozc ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

Beste alde batetik jatorku lanaren arazoa, ez baserriko lanarena, langintza edo industriarena baiño. Guk ba-geunkan industria gure oletan, industria indartsua gaiñera. Cure oleak eta errementariak Europa guztira saltzen eben, baiña zoritxarrez olen lana amaitu eta meakiak saltzeko sasoa etorri zan. Meakiak aterateko orra Somorrostroringurura, gure Enkarterrira, erbesteko langille asko etorri eta langille oneik egoera oso txarrean bizi ziran. Euren etxeetan baiño obeto irabazten, gitxi izan arren. Or sortu zan langilleen arazoa, or agertu zan Perezagua ospetsua, gero Pasionaria, eta abar. Langille orreik ez ziran euskaldundu, baiña curen sindikatoa, UGT, sortu eben. Or daukaguz gaur euskaldun ez diran alderdia (PSOE) eta sindikatoa (UGT). Perezagua Prieto'k Alboratu eban. Onek 20 urtean Burruka egin eban, beti Españatar ez.

Irugarren sail bat aitatu bear dogu emen. Bilbao'tarrena. Bilbao beti izan da Bizkaia'ren arerio: Bizkaia karlostarra zanean, Bilbao liberala zan. Gaiñera or bizi izan dira beti, Madrid'era begira egon diran esku-zuriak. Bilbao'k saleroketarako trebetasuna eukan eta orretarako saltzen eban gure erria, gogoratu aduanak portu legorretatik itxas-ertzera ekarte. Baiña jauntxu orreik etoi izan dira. Aspaldion isillago dagoz eta Bilbao'n abertzale asko dagoz, baiña Euskerazaleak amets egin dauan Bilbao euskalduntzea ez da ain erreza.

Or daukaguz ba, gaurko egoerearen iru iturriak, batez be bi burruka bizian dagozenak. Alde batetik ELA'gaz batera datozen abertzaleak eta bestetik UGT'gaz batera doazen Sozialistak. Erria eta langilleak alkarregaz burrukan? Sarritan jazo dan gauzea ori, baiña erri-zaletasunak beti agertu dau indar aundiagoa langille-zaletasunak baiño, epe laburrean ez ba'da luzean.

Gure erriaren itxaropena abertzaletasunean dago, Euskalerrri osoa (zazpiak bat) askatzea aldarrikatzen dauan abertzaletasunean. Urratsak asko izango dira elburu orretara eltzeko, baiña elburua iñoz ukatu barik.

Eta etorkiai begira zerbait: Euskalerrriaren barruan beti artu doguz etorkiak, geiegi izan diranean be bai, meategiko arazoan ikusi dogun lez eta Riestra'ren aldian Bilbao'n jazoten zan lez, baiña ezin itzi esan barik etorki guztiai: Guk zuek onartzen zaituegu, baiña zuek be onartu egizue emen erri bat dagoala eta lagundu erri ori aurrera eroaten. Ez dot esan nai guztiok alderdi politiku abertzale baten sartu bear dozuela, baiña bai, zuek eta guk, benetan maitatu bear dogula aberria, benetan abertzaleak izan bear dogula. Ori guztion onerako izango da. Eta gure erria onartu nai ez dabenak, zer? Izan dagiogun alkarrari bear dan itzaltasuna. Erriaren alde ez doana beti izango da kolonia baten antzekoa.

OLAZAR eta URIBE'tar Martin'ek

BEGOÑA (IX): BIZKAI'KO ZAINDARI

Lenago esan dogu 1738n. urtean Bizkai'ko Batzar Nagusiak Begoña'ko Ama Zaindaritzak artu ebela. Arrezkero bein baiño sarriagotan agertzen da Begoña'ko Ama Zaindari lez, bai erri-agirietan eta bai eleizakoetan, baiña artu barik egozan eleiz-legez Zaindaria izan daiten artu bear diran bideak.

1901 n. urtean agertu eban Begoña alkatea zan Karlos M. Orue'k burutasun au eta ontzat artu eben Begoña'ko Txanburu edo parroko zan Untzeta'tar Juan Kruz'ek eta Maiordomu edo anaidi-zain zan Maurika'tar Tomas'ek.

Euren asmapen ori Bizkai'ko Aldundiaren aurrean agertu eben, Aldundiak Bizkai osoaren ordezkari lez Aita Santuari eskari au egin ekion. Aldundiak baietza emon eban eta batera agertu ziran Bizkai'ko Artzipresteak be.

Lenengo eragozpena Gasteiz'ko Gotzaindegian agertu zan, esandako eskale orreik ez zirala naikoa Bizkai osoaren ordezkari izateko uste ebelako, baiña Erroma'n naikoa zirala esan eben eta Gotzainak bere aldeko eritxia agertu eban Erroma'n.

Eleiz-oikunen edo Ritoen Batzorde Santuak, 1903n. urteko jorraillaren 2n. egunean egin eban batzarrean agertu eban Begoña'ko Ama Bizkai'ko Zaindari zala.

Aldundiak orrillaren 22n. eguneko batzarrean eskérarak emon eutsozan Aita Santuari Zaindaritzari buruz dan agiri orregaitik eta beste batzar batzutan erabagi eban zelan ospatu ori jai-giroan: Iraillaren 6n. egunean irudia aldunak lagun zirala Aldun Etxera eroango eben, 7n. egunean mezea egingo zan aldun-etxeko begirategian eta gero irudiagaz batera Begoña'ra eleizbidea egingo zan.

Jai aundi orreik gertatzen zirala jakinda, erlejiñoaren aurkalariak, Gobernuo agintariakaz batera, aurka ekiteko gertatu ziran, baiña ori kontuan be ez artzea erabagi eban Aldundiak.

Aurkalarien buru Bilbao'ko Udal-Batza izan zan. Aldundiak euren laguntza eskatu eutsen eta Udal-Batzak agustuaren 19n. egunean egindako batzarrean, ezetza emotea erabagi eban. 20n. egunean batu zan alundia eta auxe erabagi eban: Lenengo, jaiak Begoña'n baiño ez ziran egingo. Bigarren, kale-giroko jai guztiak kendu egingo ziran. Irugarren, euskal-giroko jaiak Durango'n ospatuko ziran, pelota-jokoa Markiña'n, su-ziriak Balmaseda'n eres-batzen leiaketa Gernika'n eta Gernika'ra joango zan Aldundia Zandariaren aintzat artzearen agiria an izteko. Jaiak irailaren 8n. egunean amaituko ziran Begoña'n Aldundia ta bertako Udal-Batza aurrean zirala. Urrengo egunean Aldundi osoa batuko zan Gernika'ko Zugazpean eta antxe onartuko eben Begoña'ko Ama'ren Zaindaritza eta bertan Agiritegian itziko eben Batzar-agiria.

Laster asi ziran Begoña'ra enomes-aldiak: Iraillaren 13n. egunetik urrillaren 1 ln.'era Bizkai guztiko erriak eta

urrillaren 11 n.'ean Bilbao'n asita azkeneko eleiz-bide eder bat.

Gobernaritzarako Ministroa zan Garcia Alix'ek ez eban nai izan katolikuen aurkalariak egun beratarako eratu eben mitiña kentzea edo atzeratzea. Au zezen-plazan egiteko zan, eta Gasteiz'ko Gotzainari eskaria egin eutson erromes-aldi au kendu egian.

Gotzainia zan eta il-zorian egoan Fernandez de Pierola jaunak berak izenpetu eben Ministroari emon eutson ezetza eta auxe esan eutson: "Erromes-aldiak daukan elburu bakarra erlejiño-girokoa da eta erri-agintariak ez ba-dauke egokitasuna kalean zaintzeko beste indar, eurak kendu dagiela".

Ministroak ez eukan ori egiteko adorerik eta ez eban kendu, baiña egokitasuna zaintzeko emon eban berbea alperrekoa izan zan.

Bilbaotarrak ziran erlejiñoaren aurkalariak curen egitekoa indartzeko beste lurralde batzutatik ekarri ebezan laguntzailleak, batzuk itxasoz ete beste batzuk trenez, irureun inguru eta oneikaz alkartuta alegundu ziran aurkako jokoa agertzen. Gobernariak aske itzi ebazan eta ez eban ezer egin barru txarreko oneik emakume baketsuen aurka jokatu, leiarrak apurtu, ikurdiak zapuztu eta banakakoen aurka danak batera oldartu ziran. Zarataka erlejiñoaren aurka eta Begoña'ko Ama'ren aurka deadarka ibilli ziran.

Azken-orduan Gobernariak eleizbideak San Bixente'tik barik San Nikolas'etik urteteko agindua emon eban. Are.nal'ean erromesak ezelako laguntza barik ikusi eben curen burua. Ez eben itxaroten olakorik. Tiroka asi ziran aurkalariak eta Deustu'ko Ikastetxe Nagusi'ko baratz-zaiña il eben. Maraño'dar Markos zan onen izena.

Katolikuak danbadai ta irain-oivai erantzuteko goraka asi ziran eta larrialdirik aundienean danbada-ots aundi bat entzun zan eta geiago barik joan ziran aurkalariak ikaratuta eta Arenala itzi eben.

Al zan lez eratu zan eleizbidea, Askao kaletik eta mailletan gora. Alboko kaleetatik tiroak eta arriak eta iraiñak etozan eta gobernukoak ez eben ezer egin olan ebiltzanen aurka, baiña bidean joian batek bere laguna zauritu eban erria bota ebanean, baitu egin nai izan eben. 20.000 eromes inguru eldu ziran Begoña'ra eta ingurua, plazca, zelaia ta eleizea bete ebezan. Fede-giroa bizia zan. Eleizan erderaz Aita Zugasti josulagunak egin eban berba eta zelaian euskeraz Laskibar aitak. Maitasuna, oneraspena eta parkamena baiño besterik ez zan entzuten. Azkenean, ildakoari azken-laguntza emon eutson Ortiz aitak egin eban berba: "Martiri bateri lagundu dautsat azken-orduan!".

OLAZAR'tar Martin'ek

BAKE-BIDEA

Euskalerrian bakea egiteko bidea ausnartuz, neure pentsabidea agertzea bururatu jat eta ona emen, ainbat agiri irakurri ondoren, bururatu jatena, apaltasun osoagaz agertuta. Alkar-izketa da bidea baiña gauza ori zeaztu egin nai dot apur bat: Nogaz eta zeri buruz alkar-izketa?

Adibide bat?

Eguerdi bero baten gizon bat etorri zan gure etxeko atera eta esan eustan:

—Emon egistazu bazkaria, baiña ez kopau bat, maian jesarrita janari beroak baiño.

Nik erantzun neutsan:

—Gure laguntza-bideak agortuta dagoz, izan be asko zaree janari-billa zatozenak.

Itxi zan atea Emitia eskale ori aurreko leiotik deika asi zan. Guk ez geuntson jaramonik egin eta berak uste izan eban barre egiten gendula bere kontura.

Gabeko amarrak inguruan barriro etorri zan eta, atea itxiten itzi barik, auxe esan eustan:

—Emongo daustazu apari beroa ala?

—Ezin geinke emon, ez daukagu ezer laguntza-bideetan-eta.

Orduan aiztoa atera eban bere zorrotik eta idunean ipiñi eustan:

—Eguerdian nire kontura barre egin dozu, baiña eldu da nire ordua: Bai ala ez?

Ikarea sartu jatan barruraino eta erantzun neutsan:

—Bai! Bai! Aparia eta geiago be bai. Bahia kendu egizu aizto ori nire idunetik. Ori nitzat eta zutzat izan leiteke kaltegarri!

Kendu eban aiztoa eta orduan esan neutsan:

—Goazen jatetxera, afaldu dagizun.

Joan bai joan giñan, baiña jatetxea itxita aurkitu gendun. Orduan berak esan eustan:

—Emoidazuz 3.000 pezeta eta kito.

Emon neutsazan eta oraindiño esan eustan:

—Eta zergaitik ez or daukazun dirua dana?

—Ez, mutil— esan neutsan— dana emon ezkeru neu zelan biziko naz ba?

Eta beste barik joan zan. Etxera etorri nintzanean, ikusleren batek salakuntza eginda, an egozan ertzaiñak. Joan ziran oneik aren atzean, baiña ez eben aurkitu. Urrengo egunean neu joan nintzan salakuntza egitera.

Jazokizun onen aurrean ez dot uste iñok esango dauanik txarto egin nebala aitzodunagaz alkar-izketan astea. Ez egoan beste biderik bizia zaintzeko. Eta orixe esango neuke nik gaur ETA'gaz ez dala alkar-izketarik egin bear entzuten dodanean: Alkar izketa guztiakaz egin bear eta ez gitxien izukerian dabilzananakaz.

Zer emon?

Alkar-izketa egitekotan be, ez jakela ezer emon bear gogorkeri-zaleai, entzuten da gaur. Baiña nik auxe esango neuke: Emon bearreko gauzak emon egin bear dira, gogorkeria dagoala naiz ez dagoala.

Ipiñi dogun adibidean, esaterako, gogorzaleak jatekoa eskatzen dau. Emon leiken gauzea da, emon bear dana be bai. Ba, emon!

Eta bake-bide onetan nortzuk eta zer emon bear dabe?

Frantzia eta España dira emon bear dabenak eta nik bakea nai ba'dabe eskari au egingo nauskie: `Alkartu zaiteze eta olako zerbait erabagi egizue: Or daukagu bion bitartean antxiñako eta gaurko Euskalerria, iru lurralde Frantzia'n eta lau España'n. Erri ori aintzat artzen dogu eta gaurtik aurrera alegiña egingo dogu zazpi lurraldeak erri bat lez alkartuta bizi daitezcan, erri orrek erri lez bere arazoak bideratu dagizan: izkuntza indartu, oiturak alkarbanatu, irakaskintza bideratu, ekonomia bardindu, lana banatu zazpiren arrear eta abar... benetan erri alkartua izatea lortu dagien. Gero zazpi lurralde orrei banaka itaunduko jake zelan bizi nai daben: ala Paris'egaz ala España'gaz ala zazpiak bat laterria dirala ala gaur lez autonomietan... Lurralde bakoitxaren erantzuna lortzen danean, geiengo kontuan dala, jokatuko da jaurketa, gobernatzeara, bideratzeko.

Zer ez emon?

Ba-dira emon-eziñak diran gauzak be, esaterako bakea lortzeko izkilluak artzea edo erri guztiari goitik beera pentsabide bakar bat ezartea edo beste asko.

Atzerritik etorriakaz zer?

Gaur askori entzuten jako Euskalerrian auteskunde ori euskaldunak galdu egingo leukeela, kanpotik etorritako asko dagoalako, baiña ori ez dabe benetan sinisten eta orregaitik ez dabe nai olako biderik. Gaiñera galduko ba'gendu be urte batzuk igaro-ondoren barriro egin bearko litzake, ala eskubide ori Quebec'en da balioko eta emen ez?

Kanpotik etorriak Euskalerrian beti onartu doguz eta geu be bai kanpora joan garanean, arako Riestra'k

ERRIGINTZA

ekarketa aundiak egin ebazanean be bai. Beste lurralde batzutan txarrago dabiltz olako arloetan. Euskalerrian ez da onartzen Santiago'ren espatea baltzak ilteko. Mikel deunak be badauko ezpetea baiña ez norkien aurka, txarkeriaren aurka baiño.

Eziña dala?

Irakurleren batek esango dau ori eziña dala, "utopia" edo ames utza dala. Nire erantzuna erreza da: Utopia da egirik aundiena eta orrantza jo bear dogu.

Beste alde batetik, gure erria (zazpiak bat) aintzat artzea eziña ba'litz, gure bakea be eziña litzake. Gaurko arazoa al dan moduan estaldu arren, erria erri lez artzen ez ba'da, laster etorriko da beste ETA bat.

Erria zapaltzerik ez dago, erria il dala pentsau arren landako bedarraren antzera barriro agertzen da. Erriari, ibai bateri lez, bidea zarratzen ba'jako, inguruaren ondamendia ekarriko dau. Erriak bere bidea bear dau, bere eskubideak daukaz.

Erriak ba-dauke eskubiderik?

Gaur iñoiz entzuten dogu, erriak ez daukela eskubiderik, eskubideak norkienak dirala, baiña ori ez da orrelan. Orrelan ba'litz, alperrekoak izango ziran Frantzisko de Bitoria'ren "relecciones» eta gaurko "laterri eskubideak" edo "Derecho Internacional" osoa.

Udalbiltza

Euskalerrri osoa batzeko bide bat Udalbiltza dogu gaur. Lenengo urratsa litzake. Ba-ditu beronen eragozpenak,

batez be izutzaillen arazoa, baiña udalbiltza demokrazi-bidetik doa eta urrats on bat izan leiteke.

Lizarra

Lizarra'ko ituna be ba-da aukera on bat bide ori artzeko, baiña or be oztopo bardiña aurkitzen dogu. Onartu-ezintzat joten daben izukeria.

Itxaropena

Zalantza barik, egoera larri baten aurkitzen gara Euskalerrian, egoera larria eta garrantzi aundikoa. Ete dago itxaropenik arazo larri eta garrantzitsu au bideratzeko?

Aspaldion agertu diran agiririk oargarrieni begiratu ezkerro, guztiok agertzen jakuz itxaropentsu. Ona emen batzuk: Ajuria-Enea'koa, Ardantza Lendakariarena, ETA'k bake-aldiari begira zabaldutakoa, Ibarretxe Lendakariaren gaurko eskintzak eta abar, baiña gauza oso gatxa da bakea lortzea, batez be España'n eta Frantzia'n dagon egorea ikusi ezkerro eta ETA'ren gogor-bidea kontuan artu ezkerro.

Guztiok nai dogu bakea. Asi gaitzan bakerako bidea egiten, lenengo Euskalerrian (zazpi lurraldeetan), erria erri lez aintzat artuta.

OLAZAR eta URIBE'tar Martin'ek

ZUGATZ BAT SARTU DAUANARENA
EZ DA ALPERREKO BIZITZEA

DANTE

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

KARKASTILLO'TIK ZEAR

Latxagak esan eustan Karkastillo'ra joan bear gendula, Euskal-zale gizon bateri alkar-izketa baten bidez idaz-lan bat egiteko, berak "DIARIO DE NABARRA" aldizkarian argitzeko eta nik "ZER" aldizkarian. Noz! esan neutsan eta urrengo egunean an egon giñen.

Ni lenago, baten baiño ez naz egon Karkastillo'n, eta bera Aita Santi eroaten Euskerazaintzak Garde'tar Martzeliño'ri omenaldia egin eutsoen orduan, itzaldi ta mintzaldi amaieran, bere etxeko atean (gol aldean) ori-arri bat ipiniaz. Orregaitik ezin dot esan Karkastillo ezagutzen dotela; baiña oroi-arria ipini zan egunetik, urrengo astean, Euskerazaintzan mezu bat agertu zan: "baten batzuk gabaz, ori-arria malluaz apurtu egin dabela" esaten ebana.

Ori gogoan eukinda, nor-bera zurt egoten da, eta ez dira ikusi-gabe geratzen zure inguruan agertzen diranak ainbateko asmoekin, batez-be Garde'tar Martzeliño'ren etxe aurrean argazkiak ataraten zagozenez. Orren gora-beran esango neuke: gauza txikienetakorik be ez dala geratzen jakin gabe On Martzeliño'ren etsai'arentzat. Zure ondora, aingeruaren aurpegiagaz agertzen dira eta norberak be aingeruaren aurpegia ipini bear izaten dau larri alditan sartu ez egiteko.

Karkastillo'ra eldu giñanean, zuzen joan giñan Markos osagillearen gaxo-azter-tokira. Onartuak izan giñan, eta aurkezpena egin ondoren Latxaga itaunak egiten asi zan:

Garde'tar Martzeliño abadea ezagutu zendun?

—Bai! ta maite nuen oso.

Nun jaio zara?

— Karkastillo'n, 1963'an Apiril'eko 25'ean. Ama bertakoa da. Aita, Betanzos, Galiziako erri txiki baten jaio zan eta Zamora'tik unen kontura ona etorri zan ta ezkondu.

* Zeintzuk dire zure izen abizenak?

— Perez eta Antonio' tar Markos.

* Nundik zaletasuna Euskera gaitik?

— Etxean euki gendun Euskerazko mapa bat, eta amamak "La Verdad" aldizkaria elebiduna izan zana, eta lau ale atara ebazana, gorde egiten eustan.

* Nora joan zara Euskera ikasten?

— Bakar-bakarrik ikasi dot Euskeraz egiten. Ez dakit nolako zaletasuna euki doten, baiña Euskeraz erreztasun aundiaz ikasi dot.

* Zer pentzatzen zuten zure orduko gazteak Euskera gaitik?

— Nire garaiko denboratan, danok ardura geiago euki gendun Euskera gaitik, baiña gaur eguneko gaz-

teak ez dira ainbeste arduratzen. Baita gure gazte-denbora Euskaldunagoa izan zan, dantza lekuan ere orkestra edo musikariak gure dantzarekin saiatzen ziran.

* Zure ikasketak non bete zenduzan?

— Nafarroako Ikastetxe Nagusian.

* Nolakoa izan da zure ibil-bidea emen kokatu arte, eta Euskara'ri nola eutsi dautzazu?

— Uy, uy, uy, uy... oso urrutitik ibili naz Salvador'era joan nintzalako mediku-gisa, eta egunero nire zeregiñeko oar-liburuan Euskeraz idatzi egiten nebalako Euskerarekin betiko lotuta geratu nintzan. Gero bertoko sendakintzaren aukera artu nebanean ona etorri nintzan bulego au zabaltzeko. Bai Euskal-zaleen artean dantza eta Euskarazko talde bat osotu gendun. Ori len izan zan, baiña umez beterik gaudelako danok eta lan askorekin, zoritxarrez itzi genduzen gauza orreik.

* Nolako sendakintza egiten dozu?

—Bizi-jakintzaren sendakintza (medicina biológica).

* Badaukazu lagun-en-bat, Euskeraz zure antzera itz egiten dauana?

—Bai!, bertakoa dan Aguas eta Aranguren'tar Ana, bera "Jotera" da, baiña Euskera zale amorratua.

* Norekin ezkondu ziñen?

—Bertakoa da au ere, eta gazte-gaztetatik oso maite minduta egon giñen, Ezpeleta' tar Mari Jose'rekin.

* Zergaitik ez dago ikastolarik emen?

—Orain zortzi urte saiatu giñan ikastola bat egiteko, baiña lenengoetan dirua zalako eta bestetik aur gitxi euki genduzalako utzean geratu zan.

* Zer gertatu zan Martzeliño'ren oroi-arriarekin?

— Oroi-arri aundiagoa egin gendula, beren etxeko ate-alboan dagoana.

* Gaur egunean, nolako giroa dago erri onetan?

— Dantza talderik ez dago, Euskeraz ez dago ikasketarik "A" ereduia izan ezik. Lotan esan leike gaudela, erreztasun osoan bizi garalako. Joaten itzi doguz aukera batzuk, baiña argi dago zeozer egin bear dogula zaletasuna berrezkuratzeko. Nik uste dot txoko edo talde bat antolatuz asi bear geunkela, batez-be gure ardura sendotzen doalako: gaiñera Ekainan ospatzen dogu Euskeraren eguna, eta jai ori egokia da zeozetan asteko. Itzaldiak ere antolatuko doguz, eta orretarako or daukagu, berak nai ba-dau, Korella'ko Sainz eta Pezonaga'tar Xabier ondo baiño obeto beteko dauana arlo ori.

* Latxagak: ia-ba egia izaten bada gu ostera ere agertzen garan egunerako, eta ziur egon zaitez laster izango dala. Nik uste dot indar aundia daukazuela zuen

eta Erriaren NORTASUNA argitzeko, arazoak eta eragozpenak bastartuz.

Karkastillo'n argi dago, nai-ta gaur agertzen dan itxuragaitik, euren buruak irikitzen dagozela, ZAIN! euren NORTASUNEZKO ARDURAK noz bete.

Euren aitzaki bat izango ote da ba..., guk ibili garan erri guztietatik batu doguzan iritziak: "GAURKO ILKETAK EZ DAUTSIELA MEZEDERIK EGITEN?"

Nik uste dot egia dala, bear diran argibideak illuntan geratzen diralako, ainbeste ilketa, estanda eta keakaz, eta batez ere ziur! gure etzai menperatzailearen

gezurra danak jakin arren, ondo baiño obeto dakielako zarataren aitzakiaz beren maltzurkeria ostontzen, eta danon begiramena beren arazotik aldatuz, gure arazo biurtu.

Gaurko lana, gure NORTASUNAREN ARDURAK betetea da, ori lortu ez-gero, ASKATASUNA LORTUTA DOGOLAKO.

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2001 'an EPAILLA'ren l'ean

IRUÑA'KO GOIGOT'ZAI JAUNARI ERASPEN **GUZTIZ** ETA LEIALKI

Idazlan au "Diario de Navarra'n agertu da Naparroa'ko euskeraz. Errez ulertuko chite bizkaitarrek.

Agur, On Fernando. Atzo, ilbeltzak, 26, irakurri dut argitaratu-berria duzun gutuna. Gauza ederrak esaten dituzu. Bañan...

Elizak badula –dionu– bere-berea dun izkeraz, –con su propio lenguaje– itzegiteko eskubidea. Eskubidea eta bearkizuna! Batez ere orain, Euskalerrian alde bateko eta besteko nazionalismo zakarrek gure kristauen –eta ez-kristauen– buruetan orrenbesteko illuntasuna, eta biotzetan orrelako gorrotoa sortu digutenean.

Bai, badu Elizak itzegiteko eskubidea eta bearkizuna. "Bere" izkeraz edo ez, izkera ulerterrezez beintzet, XXI mendeko gure jendeak errez ulertu dezaken izkeraz, beintzet, euskaldunik geienak Elizatik urruti bizi bait dire. Batzuek oso urri, gezurra eta iruzurketa-bidez alkar-ezin-ikusia ereiten ari zaizkigun izparringilari eta gaiñerako mezulariak adibidez, eta beren burua marsist-leninista aitortzen duten ETA'tar odol-isurleek. Oiek ez dute Elizaren itzegiteko erarik ulertzen.

Nik neronek ere ez dut uste osoro ulertu zaitudanik. Batzuetan diozuna beiño geiago esan nai duzula bait dirudi. Pakerako alkarrizketa eskatzen duzunean adibidez. Alkarrizketa norekin? HB'rekin ere bai? ETA'rekin ere bai? Edo zure adiskideekin bakarrik? Auekin bakarrik itzegiñez ez duzu ba pakerik lortuko. Zurekin asarre daudenekin itzezin bearko duzu, zuk benetan nai duzuna pakea ba'da.

Beste batzuetan, esaten duzuna, esan nai duzuna ez dala dirudi. Esaldi ontan adibidez: "nik pakea aipatzen dutanean ez dut ETA'k eta nazionalistek itz oien bidez adierazten dutena esan nai. Eztare demokrata batek adierazi nai lezakeena".

Zer da ba zuk adierazi nai duzuna? Esaldi ortan gaiñera ETA ta nazionalistak bat egiten dituzu, eta ori egiñez izugarrizko oztopoa dagizu. Euskalerrian jeltzaleak, egiazko nazionalistak, asko dira, jende kristaua, ETA'ren etsairik aundiena. Beste esaldi baten Euskalerriko burujabetza eta askatasuna "uste usteko" zuzentasuna duten gauzak direla diozu, –"pretendida justicia de la autodeterminación y la independencia de Euskal Herria"–, ETA'k eta nazionalista "radikalek" eskatzen duten gauza: "libertad de configurar el nuevo Estado independiente de Euskal Herria".

On Fernando: ori, ETA'k eta "HB"k ez eze nazionalista jeltzale kristau zintzo guztiek ere eskatzen dute, eta ERRI batek askatasuna eskatzeko eskubidea Elizaren dotriña dela zuk zerorrek beste iñork beiño obeki daki zu. Orregatik diot, batzuetan, itxuraz, esan nai duzuna beiño geiago esaten duzula. Oridelata, gutun orrek miñ aundia sor dezake zure ardi askoren biotzetan –agian zure ardirik onenen biotzetan–. Madrid'eko Jaurilaritzaren alde agertu zarala bait dirudi.

Barkatu, On Fernando: idatzi dutana ez dut zu mintzeko asmoz idatzi.

Lategi'tar Bixente (945220050).

1 Ona gotzaiaren itzak: "Cuando yo digo paz no quiero decir lo que los ter'oristas o los nacionalistas puedan significar con esa misma palabra, ni siquiera lo que un democrata pueda expresar con ella, sino lo que en el contexto moral y cultural de la iglesia significamos con esa palabra con sus elementos sociales personales y religiosos". Orixe da bá, On Sebastian, Sabino'z gero nazionalistek beti gura izan duten pakea.

KADIVKO KORTEAK ETA EUSKALERRIA

Amabi urte-inguruko mutikoa nintzala, orduan irakasten euskuen Edestia ikasi nebanean, ez dakit zergaitik, barruak dar-dar egin eustan eta azterketa aretan emon eusten nire neurri-liburuan agertzen zan "suspensio" bakarra.

Orduan gitxi ulertu neban eta orain barriro ikasi dot arazo garrantzitsu au. Zer jazo zan Kadiz'en urte aretan?

Kadiz'en 1812n.urtean españatarren lenengo laterri-lege edo konstituziñoa idatzi zan. Lege nagusi onek aldakuntza asko izan ebazan urrengo urteetan. Zazpi lege nagusi sortu ziran XIX gizaldian ortik.

Antxe alvertu ziran lenengoz, eta gura kalterako, alkarren aurrean españatarren lege nagusia ta gure Lege Zarrak. Apur bat aurrerago Napoleon'ek pentsakera bardiña eukan: Lege Zarrak kendu eta lege nagusi oi ren aurrean guztiok bardiñak garala adierazo. An agertu zan españatarren "nasionaltasuna" lenengoz eta gaur arte bizi irauten dau: España da naziñoa (ez da un esan "aberria", ez da-ta) eta España bakarrik. Ba-ziran an Diputatu edo aldun euskaldunak, baiña epel jokatu eben. Onik atera geinken bakarra Bizkai'ko Egia izan zan. Onek argi eskatu eban Bizkai'ko Lege ZaiYak laterri-lege orren barrura sartu bear zirala.

Asieran, maltzurkeriz, diño laterri-lege orrek Lege Zarrak ez dagozela lege nagusi orren aurka, baiña fueroak kentzeko bide argia zan. Euskalerriko erakundeak zalantza aundiz artu eben lege nagusi ori.

Lege nagusi ori españatarrentzat aurrerakoia zan: Inkisiziñoa kendu eban, irarkolaren askatasuna aldarrikatu, lur geldiak "desamortizatu", erri-lurrak lurbakoai eta soldadu izanai emon. irarkolaren askatasuna aldarrikatu, agintaritzaren errian dagoala ziurtatu tez erregearen gan), laterrian diran iru almenak ondo bereiztu (Monteskieu'ren bidean)... orrexegaitik ez eban irauin bost urte baiño. Gero 1876.urteko lege nagusiak agintaritzaren ez dau errian ezarten, erregearen eta korteeetan baiño.

1836n.urtean, karlostarren lenengo guda amaitzeko Bergara'ko besarkadea izan zanean, iru probintziak (Kadiz'ko berbea) lege zarrak izango dabezela, baiña España'ko Laterri-Legearen barmian esan eban. Beste maltztukeri bat, lege zarrak kentzeko bide hat. Eta

Karlos'tar euskalzale gizajoak atsipetu egin ebezan. Orregaitik emon ebezan curen izkilluak.

"Binomio" au bideratzeko, Naparroa'n 1841n.urteko agustuaren 16n.eguneko legearen bidez, konpondu eben azaroa, baiña naparrak orduan galdu ebezan legeak egiteko eskubidea, España'ri zergak ez ordaintzekoa, eta "ley paccionada" ori zala-ta España-barrura sartu ziran, naizta ekonomi-eskubide batzuk zaindu. Baiña ez zan egin olako itunik Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba'gaz: 1841n.urteko urrillaren 29n.egunean, Espartero'k ateratako aginduaren bidez, Gipuzkoa zigortuta geratu zan. la foru guztiak kendu ebezan, zergen eta soldaduskaren arazoa izan ezik. Aduanak itxas-ertzerat aldatu ziran eta "pase ford" edo forubaimena kendu zan. 1876n.urteko Laterri-Legeak estu ziurtatu eban Laterriaren batasuna eta urte beratan Canobas'ek lege zar guztiak kendu ebazan. 1878n.urtean, otsaillaren 28n onartu zan iru "probintzientzat" ekonoini-ituna.

Kadiz'ko korteeetan izan zan ba, lenengoz gure eskualdeak España'ko probintziak zirala aldarrikatu zan sasoi. Nik ba-dakit guri Edestia azaldu euskun Lardizabal'dar Emeterio'k olako arazoa agertu ez euskuna. Bera zan irakasle lez "suspensio" merezi ebana.

Laster jaioko da Esukalerrian gizon zur bat, edestia ondo ekian gizon bat, "Euskaldumen aberria Euzkadi da" aldarrikatuko eban eta lege zarren bidea errentzarentzat eriotzarako bidea zala esango eban Arana ta Goiri'tar Sabin.

OLAZAR eta URIBE'tar Martin'ek

ZUGAZTIAK ERRIAK BAINO LENAGOKOAK DIRA: BASAMORTUAK ERRIEN OSTEAN DATOZ. ZUGAZTIAK GALTZEA GIZONENTZAK ZIGORRA DA.

Chateaubriand

ZUGATZAK BOTA EZKERO, URA TA TXORIAK BADOAZ. ZUGATZAK SARTU EZKERO. URA TA TXORIAK EKARRI EGITEN DIRA.

ZUGAZTIAK DIRA GIZAKIAI EGINDAKO EMOITZIK ONENA.

R. Codorniu

Zizeron

GAURKO ZIORTZA (ETA IX)

ITXITASUNA, BARRU-MIÑA TA LENENGO EKINTZAK

Orain ogei-bat urte dirala, gure ikustaldiak egiteko, joaten giñan Ziortza'ra eta biotza apurtuta urtetan gendun andik. Zelako edertasunak baiña zelako itxitasunean! Eta ez giñan gu bakarrak orretan, asko ziran Bizkaia'n aldi aretan olako barru-miña eukenak. Baiña zer egin?

Zerbait egiteko almena eukenak asten ziran gogorik onenagaz zeozer egiteko ustean, baiña ez eben ezer lortzen. Gogoratu daiguzan une batzuk.

1851n. urtean epaillaren 16n. egunean egin zan "konkordato"an 21n. arauan Kolejiatak zaintzeko erabagia artu zan, baiña zerrendan ez zan agertzen Ziortza ren izena. Ordutik aurrera Ziortza ez zan kolejiata, parroki biurtu zan, azkenengo abata eta bertako kanoniguak an geratzen zirala. Guztiak ziran parroki aretako abadeak baiña 1379n. urtea ezker kolejiata izana, deseginda geratu zan.

Urrengo urteetan Aldundiak sarritan aitatzen dan Karlos Areyzaga eta Isidoro Leon lenengo arduratuak zirala.

191 In. urtean Markiña-aldeko aldunak, Urizar, Urrengoetxea ta Aroyo'k, Aldundian eskaria agertu eben Ziortza "Oroitex" edo "monumento histórico" biurtzeko. Eskaria onartua izan zan eta Etxegarai tar Karmelo'k artu eban ardurea Ziortza'ko barriak ekarteko.

1930n. urte-inguruan Kortazar etxegiñak, au abade baten senidea zan, Martin Kortazar'ena, eginbide bat gertatu eban Ziortza'n abat-etxe bat sortzeko eta lekai-deak ekarteko.

1965n. urtean ardura aundiz artu eban Ziortza barrizatzea Aldun Nagusi zan Xabier Ibarra'k, beronen adiskide aundia zan Gurgide gotzaiñagaz batera. Baiña Ibarra jauna, tamalez, ETA'koak baitu eta il egin eben. Urte orretako urterillaren 14n. egunean Gurgide Gotzaiñak Patronatoa sortu eban Ziortza ber-egiteko. Bereala asiko eben ber-egite ori, Eleizbarrutia Ziortza'ren eta beronen ondasunen jabe izatekotan, baiña Zister'eko lekaideen esku iztekotan, Jose de Anzizu buru zala. Aldundiak lau millo; emon ebazan. Zortzi urtetan ordaintzekotan. Baiña dana geratu zan, etxegintzan lan batzuk eginda ezer geiago egin barik, nire ustez Xabier Ibarra il ebelako.

Dana dala, gauzak bere lekuan ixteko eta edestiagaz zintzoak izateko, aldi oneri buruz zerbait geiago esan

bear dogu: Argentina'tik etorritako Zistertar napar onek, laiko bat lagun ebala, Kolejiataren ardurea artu eban eta etxegintza amaitu-artean Bilbao'n bizileku bat emon eutsen eta laikoa eliz-ikasketak egin barik abade egiteko baimena eskatu eben Erroma'ra eta lortu be bai. Anzizu lekaidea Madrid'en Puigdollers'en idazgelan aurkitu eban Felix Aretxaga'k, berau beste arazo bategaitik ara joan zanean.

Lekaide bi oneik elburua argi euken: Andaluzia'n egoan erlejiño-giroa ekarri Markiña-aldera, au erlejiño gitxiko lurraldea zalako eta inguru au erdeldun eta espaniatar biurtu: "desvasquizar".

Jose de Anzizu onen il-txartelean, "Abad de Zenarruza" dala agiri da. Gauzak aurrera joan ziran.

Au dana Aldundian dan agiri bategaz baieztatu lej.

Dana amaitu baiño len il zan Ibarra, il zan Gurgide Gotzaiña be, eta abade biurtzeko Erroma'ko baimena eukana ez eban abade egin Zirarda Gotzaiñak. Or amaitu zan asmo oker ori.

Dana dala, barrumiñak or jarraitzen eban eta zorionez, 1982n. urtean ekintzaille adoretzu batzuk agertu ziran, asmo zar eta eder au bideratzeko. Ona emen zelan.

Iru izan dira asmo au arrera, atera dabenak. Ez dautse iñoz bear dan besteko eskerrik emongo Bizkai'ko Eleizeak: "Txomin Bereziartua, Felix Aretxaga eta Iñaki Goikuria". Zelako lanak eta zenbat batzar egin bear izan daben oneik sinistu eziñeko gauzea da.

Lenengo egin bear zana, eleizbarrutia arduratzea zan, eleizkide guztiak baiña batez be abadeak. Orretarako, kontzientzia sortzeko, iru agiri zabaldu ebezan, zabaldu eta Gotzaiñai emon: Lekaide bizitza zer dan azaltzeko eta Ziortza'n zer egin leiken agertzeko lenengo, Ziortza'ren arazoa agertu eta Talde Eragille bat



sortzea eskatzeko bigarrena eta gero gauzea obeto zeatuteko Talde Eragillea sortzeko izenak emon ebezan: Talde-buru Jokin Perca, Bikario-ordea, eta maikoak: Jose Maria Rementeria Lurraldeko Bikarioa, Jose Manuel Bizkarguenaga liturji arduraduna, Karmelo Ibarra Zaintza-Arduraduna, Jose Ramon Valverde Museo'ko arduraduna, Felix Aretxaga abadeen izenean eta Txomin Bereziartua Labayru'ren izenean. Gaiñera Jokin Perca Bikario-ordeak beste izen batzuk gaiñeratu ebazan: Jesus Etxaniz Jaurlaritzako Arkitektoa eta Joseba Lejartza Urkiola'ko Santutegiaren eta elkartearen arduraduna. Jarraian asj ziran lanean, bakoitxa bere arloan, taldekide guztiak.

Irugarren agiria itzi dogu azaldu barik: Lekaideen edestia eta Bizkaia'n dauken egoerea agertzen dau, batez be ez daukagula Bizkaia'n lekeideen monasteririk, eta orretan Bizkaia dala lurralde euskaldunen artean bakarra.

Talde Eragilleak egin ebazan batzarren barriak zeatz emotea luzegeia litzake, baita aspergarria be, asko eta ardurasuak diralako. Itzi daiguzan alde batera.


TALDE ERAGILLEAREN ARTEKARI-LANAK: GOTZAINAKAZ

Bilbao'ko Gotzain zan Larrea'tar Koldo Mirenak eta batez be Gotzain Laguntzaille zan Uriarte'tar Juan M^a k beti artu eben gogo beroagaz zistertarrak Ziortza'ra ekarteko asmoa. Juan M.^a bera izan zan Oliba'n zistetarrak asmo au agiritegian dagoan itzaldi oso egoki baten bidez agertu eutsena eta Goitzaiñak eta Perca Ordezkarriak ardura aundiz eta egokiro agertu eben arazoa Eleizbarrutiko Abade Kontzeilluaren aurrean. Pozik artu eben asmoa Kontzeillu onetan abadeak. Ondo dakigu Juan Mari ezagutzen dogunok zelako zaletasuna daukan lekaidetara eta batez be Ziortza'ra.

ALDUNDIAGAZ

Esan dogun lez, antxiñako gauzea da Aldundiak Ziortza'ri buruz eukan ardura, baiña btiltzada baten bear-izana egoan eta lan ori egokiro egin eben Eragille-Taldekoak. Sarritan egon ziran Pradera Aldun Nagusiagaz eta batez be Makua'gaz, sarriagotan Aingeru Zabala erti-arloko arduradunagaz eta Manu Legarreta'gaz. Makua Jaunak eskatuak baiño lur geiago eskiñi eban inguruetan, eskiñi eta emon.

Aldundiak erantzun oso egokia emon eban, Lekaideak etxea giltza eskuan dala doan emoteko erabagia onartuta.



LEKAIDEAKAZ

Talde Eragilleak egin eban beste lan zabal eta sakon bat lekaideakazko artu-emonak izan ziran, lenengo urriñekoakazko artu emonak eta gero urrekoakazkoak.

Zertarako urriñeko lekaideakana?

Dana izan zan Zistertar egoki batzuk Ziortza'ra ekarteko billaketa bat. Ez zan gauza erreza izan, lekeide-etxerik geienak lekaidetzarako deituak urri eukezelako. Billaketa gaitxa izan zan ba eta ona emen gutunez edo ikustaldia egiñaz artu-emonetara sartu ziran Lekaide-etxea urriñekoak: Sobrado de los Monjes, Dueñas, Valvanera, La Oliva, Soria'ko Santa Maria de la Huerta, Jaka. Erantzun beti zan bardin antzekoa: Asmoa oso ona zala, baiña eurak ez eukela non bialdurik.

Baiña jakingarriak dira, baita, urreko lekaideakaz izan ziran artu-emonak. Urkiola'ko alkarteak sartzen da emen eta une onetatik Urkiola'ko bi sartzen dira Talde Eragillera: Joseba Lejartza eta Biktore Garagordobil Gotzaiña.

Urreko lekaideen artean, La Oliba be sartu bear geunduke, baiña ona emen sartzen doguzanak, guztiak Euskalerriko Lekaide-Etxeetakoak: Urkiola'koak, Lazkao'koak, Estibaliz'koak eta onein artean ain maitagarri dogun Mauro, Isidro Bazterrika eta Benezuelatik etorrita egoan Jose M.^a Sasia. Batzarretan ez baiña urrean dagoala somatzen da Bellok'eko Diartze edo Iratzeder.

Batzar asko egin eben urreko lekaide-etxeen ordezkarri oneik. Dana ezin dogu zeatz azaldu, luzca litzakelako, baiña bai gogoratu nai dogu agertu eta aztertu zan eritxi bat: Beneditarren artean Euskalerrian eskualde edo probintzi edo erki bereizi bat sortzekoa. Beti agertzen da ez dala eziñezkoa, baiña or dago arazoa, antza dagoanez geldi. Gauza ederra litzake.

Gaiñera, urreko lekaideen artean Ziortza'ri sorkuntza-orduan laguntzeko gurari bizia agertzen da. Olan egin dala uste dot. Talde onen batzarrak jarraitu egin bear jukuee.

BIZKAIA



INGURUKO ABADEAKAZ

Ziortza aspaldiko urteetan parroki biurtuta egoan eta orregaitik, monastegia izateko, parrokiaren arazo ori bideratu bear zan. Ez dalako egokitzat artzen lekaideak parroki bateko arduradun izatea. Orretarako, Talde Eragilleen kideko dan Jesus M^a Zendoiak artzen dan ardurara aundia eta onegaz batera Jose M^a Rementeria, Lurrealdeko Ordezkariek.

Gaiñera illerri bat be ba eukan Ziortza parrokiak eta arazo ori be bideratu bear zan.

Ziortza'ko eleiztar ziran inguruko baserriak guztjakaz izan ziran artu-emonak eta azkenean baserri bakoitza urren eukan parrokira aldatzea erabagi zan. Azkenean parroki izatea ez dau galdu.

Beste alde batetik, inguruko abadeakaz arazoa aztertzea bearrezkoa zan eta egokiro egin be egin zan.

ZIORTZA ETXEKO BIZTANLEAKAZ

Antxiñako Kolegiata parroki biurtuta geratu zan ezker, bai etxeak eta bai lurrak, errentan-edo emonda egozan eta Lekaide-Etxean etxeak aske eta ingurua jsil eta baketsua bear eban.

Olako arazoak, sendi batzuei ikututen dautselako, mingarriak izaten dira eta bideratzea ez merkea. Barriro, ainbeste batzar eta eztabaida izan ziran, baiña azkenean dana bideratu zan. Eleizbarrutiak be emon bear izan ebazan milloi batzuk.

MARKINA'KO UDAL-BATZAGAZ

Ziortza Markina erriaren barruan dago eta jakiña da olako eragin aundi batek ba-daukala zer-ikusia eta ez makala Udal-Batzagaz. Izan ziran or be argitu-bearreko arazo batzuk eta barriro be batzarrak egin-bearra izan eban Talde Eragilleak. Lauren Aretxabaleta alkaiteak erantzun ona emon eban.

Ez dakit lortu dodan gai korapillotsu onetan eta agiri-moltso aundi baten barruan murgilduta, irakurleai gauzak argi azaltzea.

Edozelan be, edesti jakingarri au aztertu na; dauanak izango dau aukera agiri guztjak ikusteko. Gaur Txomin Bereziartua'ren esku dagoz baiña beronek esan daustanez laster itziko dauz eleizbarrutiko agiritegian.

Goazen orain azkenengo gaia azaltzera.

ZIORTZA'KO LEKAIDEAK

1988n. urteko martiaren 15n. eguna ez da aitzu bear-ko: Egum onetan Patxi Elgezabal eta Jose Luis Maritxalar lekaideak aurkeztu ziran Bilbao'ko Gotzaindegira eta Juan Mari Gotzainagaz egon ziran euren eskintza egiteko. Gertu egozan Ziortza'ra etorteko.

1996n. urtera arte iraun eben etxegintza-lanak, antxiña, 1380n. urtean Kalaorra'ko Gotzain zan Gonzalo de Mena'k iras; eban Kolejiata arena izandako etxea barrizatzen.

1996'ko urriaren 10n. egunean Erroma'k emon eban agiria Ziortza'n monastegia sortzeko.

Eta orain or daukaguz gure lekaideak. Gaur bost dira eskintzak edo botoak eginda dagozanak eta bi gertatzen dagozanak. Gejago bear dira eta uste dogu etorriko dirala. Gaur egun gejago dira lekaide izan nai dabenak, abade eta fraille izan nai dabenak baiño, eta ezin ukatu danean dagoala urritasuna eta lekaide izateko deia ondo aztertu bear dala, egokiak aukeratzeko.

Orra or, irakurleok, jakingarria dan edesti ori. Ziortza'ra urreratu ez ba'zaree, joan eta ikusi.

OLAZAR'tar Martin'ek



EUSKALERRIKO LARRUKIRIK ZARRENEAN AGERTZEN DIRAN EUSKALERRIKO 27 EMAKUMA-IZENIK ZARRENAK

Argitaratu din euskalerrri zarreko elizaren edestiari dagokion irugarren liburua: "Euskal-Kristautasunaren sendokuntzo". Lau-arrena gertutzen ari naiz orain, eta VIII mendearen erdiko larruki bat, gure larrukirik zarrena, 759'ko jorrailaren 24'ekoa aztertzerakoan, bertan agertu zaizkidan 27 zazpi emakumezkoen izenak naita-naiez azaldu bearrean aurkitzen naiz.

Danek dioten gauza da izen oiek euskaldunak izan da-ri ziurtzeko iñor ez du orain arte beintzat saiaketa txikienik egin. Orixe da bá nik °aur egin nai nukeana.

Saiaketa ori kixaz egiteko au izango dugu eragozpenik aundiena: Larruki zar oiek usteon aundiegirik ez dutela merezi, -eroago bein baiño geiagotan aldatuak izan diralako.

Jakintza ontan gizonik jabetuena Ubieto Arteta'r Andoni du gu. Entzun bá larruki auker ongien aztertu dituan Ubieto Arteta Balentziar-Unibertsitateko irakasle dan gizon orrek bere liburu baten itzaurretxoan damaizki-;un itz auker: "He insistido reiteradamente que la documentación de San Millán de la CoQolla contiene abundantes falsificaciones sobre todo entre los textos más antiguos" ("Cartulario de San Millán de la Gogolla", 4).

Izen oien euskalduntasunaren agerpena, ordea, naiz bearrezkoa izan, luzeegia gertatzen zait idazten ari naizen liburu berri ontarako.

Berez ekintza ori akademi-lana dalako, "Euskerazaintza" izenenko gure Boletiniñean agertu bearko nuke, baiñan, txanponik aski ez dugulako Boletiniñ ori geiago agertzerik izanQo dugun ez dakit-eta, "ZER" deritzan bizkaierazko Aldizkari onuragarri ontan eman bearko dut argitara.

VIII mende zarreko Qure emakume aiek lekaimetxan ziran, eta sortu berria zuten lekaimetxearen berri emateko idatzierazi zuten larrukiaren azken aldera datoz banakabanaka bakoitza bere izena esanez. "Hic roboravi", ots, "emen dagit nere ikurra" diote bere izen ori ematerakoan: "ikurra ipiñi": Orduango jenderik geienak, batez ere emakumezkoen geienak idazten ez bait zekiten. Ikur ori gurute bat izaten zan.

Lekaimetxan zeramazkiten izen oietatik lau, Eliz Orokorreko izenak dira: "Maria" bi, "Urbana", "Eugenia", eta "Susana".

Euskaldun-usaiekoak "Amunna" (Amuña), "Monnia" (Moña), "Eilo", "Scemena" (Xemena, Ximena) bi, Umma, Munnoza (Muñoza), "Alduara", "Sancia" (Santxa), "Anderazo", "Munnata" (Muñata), "Tota", "Gometiza", "Hurraca", "Anderquina".

Jatorri illunagokoak "Donna", "Ginta", "Auria", "Clarea" "Numadonna", "Flagina", "Guntroda".

Aztertu ditzagun banan-banan euskal-itxura bai omen duten —eta bai izan omen dezaketen— izen guzti oiek, beren usaj ori egiazkoa ote dan edo ez ikusi dezagun.

— Alduara. Izen orren sustraia, ALDU euskal-izena, askotan da-erkigu bai aurizki eta bai atzizki bezala. Adibidez "Aldura" Gipuzkoa'n iru mendiren izena da. Eta "Aldu" bezain ugari aQertzen zaigu bere aldakuntza omen dan "ALDO". Izatekotan ura dala onen aldakuntza, esango nuke nik, "U" "O" zailki biurtzen dan bezala, nekerik txikienaren legearen araura, oso-oso etrez biurtzen bait da "O" "U".

"Aldu" "k", "garai" esan nai omen du, "aldua" "k", "-araio"; -azteleraz, "alto". Ori da beintzat Mitxelena'k uste izan zuana.

"ALDO" eta "ALDU" enbor lez agertzen duten izenak, beintzat oparo ditugu gure izendian; ALDURA (Oiar-tzun'en mendia), Aldui, (Naparroa'ko Abartzuza'n abizena), Alduia Araba'ko Ali'n tokiizena), Alduzan (Benaparroa'n tokiizen eta abizena), Aldunate (Naparroa'ko Urraul'en tokiizena), etabar, etabar, etabar...

"O" "U" bezala "A" eta "E" ere sarri ta errez alkarrekin trukutzen diralako, ona emen "Eldu" "z" asten diran tokiizen eta abizen batzuk: "Blduaren", Gipuzkoa'n, iru izen dituan tolosaldeko ibaitxo bat dugu: "Elduaren", "Eldurain" eta "Eldurayen". "Eldua", berriz, ibaitxo orren alboko auzoa, eta "Elduayen", erri ezaQun bat. "Eldua", gaiñera, Araba'ko Lagran'en alor baten izena ere bada. "Eldoyen" Laburdi'ko Ziburu'n, abizena. "Eldoz", Oiar-tzun'en baserria. "Eldone", Naparroa'ko Artajona'n bur-niaroko aztarnak azaldu dizkigun Jurralde bat. "Eldur", XII mendean Naparroa'ko Arbeiza'ren auzoa. "Elduatxe" Bizka'j'n Abanto-Zierbana'ko tokiizena.

Danadala, naiz -uk itz orren esannaiarik ezagutu ez, lekaimetxan izena, "Alduara", euskalduna dala aitortu-bearrean aurkitzen -era.

— ANDERAZO. Oraingoan ere ez dakigu izen orren esannaiara zer izan daitekean. Ori gertatuko zaigu ondorengo izenekin ere. Ez dirudi, beintzat, "andre" itzarekin aidetasun aundirik izan dezakeanik. Toponimo edo toki-izen bat dala bait dirudi.

"Ande" antziña-antziñako izena dugu Euskalerrri Zarrean; Kristautasunaren aurretiko sasijankeme euskaldun baten izena bait da.

Andelos, berriz, ez askoz geroagoko erri napar baten izena, Ptolomeo'k dioskunez. Erri ori gaurko Andosilla izan omen daiteke.

¹ Azpiroarraketui, nereia.

EDESTIA

Anderezu IX eta X mendeetako gizakume euskaldun biren izena da. Eta baita Anderezi ere X mendean.

Anderezo'tik sortuak dirudite "apellidos vascos" omen diran "Andraza" k eta "Andara" k ("Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco" k.

"TZ", "TZO", "TZA", euskal-atzizki toki-adierazle ezagunak ditugu. Itzaren sustraia, "Andera", zer dan ez dakigu baiña ez dut uste gaztelerazko "Andres" izenarekin edo latinezko "Andreas"ekin zer-ikusirik izan deza keanik. VIII mendean, gaztelerarik ez zalako, eta laterazko "Andreas"tik euskerazko "Andera" rako tartea aundiegia dalako eta VIII mendean gaztelerarik ez zalako.

– Anderkina. Beste lekaiame baten izena. Badu lengo izenarekin aidetasuna baiño geiago: baita senidetasuna ere. Biek berdiña bait dute sustraia: "Ander" azkeneko onek. Eta, Nominatibu edo izen-keran, "Andera" lengo arek.

Ezberdintasuna atzizkian dute. "KINA" bait da Anderkina'rena. Eta "kina" ori zer dan nik ez jakin!

Kinea, Gallarta'n tokiizen bat dugu. Kinea, XI mendean, gaur Ginea esaten zaion Araba'ko erriaren izena, eta Bizkai'n Karrantza'ko mendi batena. Kindao, berriz, gaztañadi batena.

Larrukia latinez idatzia datorrelako, izen osoa bera ere, "Anderkina" latineraturik dator seguruaski.

Orrela ba'litz, "Kina" ortan egiazko atzizkia, atzizki euskalduna, "KI" dala esango nuke nik.. eta "NA" itz osoa latineratzen duan latinezko atzizki emetasun-adierazlea.

Beintzat, "Anderazo" bezala "Anderkina" ezipairik gabe izen euskalduna dugu. Eun urte geroago, IX mendean, euskaldun baten izena agertzen zaigu bi izen oiekin kideasun aundia duan beste izen bat ANDEREZI.

ANDERITUM, erromatekoan, Akitani euskalduneko uri bat zan. "Anderidon" ere esan oi zitzaion, Gaur, frantzeraz, "Albret" esan oi diote. Bai: Naparroa guztiko azken erregearen abizena.

– AURIA. Beste dokumentu batzuetan "Aurea" bezala ere agertu izan zait izen ori. Biak dira izen bat bera. Neke-rik txikienaren araua "E" sarritan "I" biurtzen bait da. "Aurea. Nombre personal vasco" diosku "Enc.GnLIus. País Vasco" k.

"Auribita" Naparroa'n abizena da.

VIII mendeko lekaiame zar aren izenaren sustraia dan "AUR" ortatik sortua da IX mendean agertzen zaigun "Aurevita" giza-izen euskalduna ere.

IX mende ortan, ordea, Naparroa'n, AWRIA edo AURIA bat ere agertzen zaigu. Emakume ospetsu baten izena, 852 Laturtze mendian Asturietako Bisigoten aurka izandako borrokan il zan Gartzia buruzagiaren emaztea.

¿Santiago'ren ezpataz izen ote zan erailla? Borrokaldi ortan agertu omen zan bá Doneyakoba,

*"Equoque et ense ucerriu nrs
mnuros furentes sternere".*

Zaldiz eta ezpataz leiatsu moro errabiatuak porrokatzera.'

Mauro aiek Tudela'ko Banu-Qasitarrak ziran, eta borroka artan aiekin batean ibilli ziran, Asturietako bisigotiar lapurren aurka alkarturik, Naparroa'ko euskogudariak.

"AU" eta "AW" oiek antziña artan "O" agoskatzen ziran. ¿Oria ote zan bá lekaiame aren izena?

Edozein erara, "Auria", "Aurea" edo Oria zeñtzan gure lekaiame ura, euskalduna zala beintzat ukatzerik ez dugu.

EILA. Izen ori "Eilon" antziñako izen euskaldunaren emakera da. "Eylon" zeritzan IX mendean, 866'ean, III Alfontso Asturietako Errege bisigotiar lur-ebaslearen aurka borrokan ibilli zan Araba'ko konteak.

– GUNTRODA. Izen onek badu bisigotiarra izan daitekealaren itxura. Baiñan euskalduna du beintzat "DA" atzizkia ("Markai-da", "Zirar-da", "Lejar-da" etabar). Eta itzaren enborra dan "Guntro"ri-buruz, esan dezagun "Gun'z" daraman giza-izenik eta tokiizenik aski badugula; "Gunaba" Arrasaten'n, "Gunape", Gueñes'en, "Gunbelea" Naparroa'ko Gallipientzo'n.

GUNE abizen eta tokiizen euskaldun askotan agertzen zaigu. Atzizki bezala, "Arangune" tokiizenean adibidez, "gune" k "gaiñ" esan nai du. Orrela, "Arangune" gazteleraz "Sobrevalle" izango litzake.

Alatagutziz, "Gun" eta "DA" ren artean dakusgun "TRO" orrek damaio "Guntroda" itzari, bisigotiar itxura. Ez dezagun ordea aztu zenbat aldiz izan diran dokumentu auek kopisten erruz –edo gaiztakeriz– aldatuak eta beraldatuak, eta ez dezaiogun lekaiame ari, euskalduntasunik ukatu.

Gaiñera, izena germaniarra izatea ez da iñolaz ere bera bisigotiarra zalaren adigarri. Nik Latinezko izena daramat, "Vincens", baiña ez dut latín-odolaren ttantta bat ere. "Oton" deritza nere adiskide batek baiña ez da germaniarra; euskalduna da elez eta euskotarra jatorriz.

DONNA. Izen onek ere euskalduna ez baiña latinezkoa dala dirudi; "Domina" ("Andrea") ren laburpena.

Baiñan... "Donnas" (Donnats?) XI mendean orain ezabaturik dagoan Araba'ko erriska baten izena zan, eta "Donnea" Laburdi'n abizena dugu. "Donnea" abizen laburdiar onek eta "Donna" lekaiame zar aren izenak ¿bai ote dute "santu" esan nai duan "done" rekin aidetasunik? Bein baiño geiagotan aidetasun ori egiazko izaten bait da:

Orrela Naparroa'ko Doneztebe'n eta Donamaria'n, Gipuzkoa'ko, Laburdi'ko eta Benaparroa'ko Donibane'tan, eta "Doniane Aundi" eta "Doniane Txiki" deritaten Deba'ko baserri biren izenetan.

CLAREA. Aurreneko begiraldi batean "CLARA" ren aldakuntza ematen du. Eta orrela ba'litz, bai, zalantzarik gabe, latinezko izena izango litzake. Bai baiña..., bai baiña..., badu zerbait, neri beintzat, zalantzaren apurtxo bat sortarazten didana» ez dala done-izena. Klara Donea, XIII mendekoa bait da, eta VIII'goa berriz gure lekaiame ura.

Egia da, mende artan, eta baita geroxeago ere, bataioztakoan doneizenak ez ziranak maiz ipiñi oi zirala. Bai-

¹ Doneyakoba'ren bezperetako ereserkiaren itzak.

ñan doneizena ez zalarik, ¿zer gura rik eraginda ipiñi o j ziral. Baiñan doneizena ez zalarik, ¿zer gura rik eraginda ipiñi zion Euskalerrian norbaitek emakume ari latiñezko izen bat? ¿Ez ote da "Clara" ori geroagoko berr-idazle baten trakeskeriaren ondorioa?

Gorde dezagun gaiñera gogoan, larrukian agertzen zai- gun bezala lekaime aren izen "Clara" ez baiña KLAREA zala. Eta "K" aurrenizkia askotan "G" izaten dalako –"Kiputz"="Giputz", "Karate"="Garate", "Karrai"="Garai", "Karramiola"="Garramiola" etabar – ¿gure lekaime aren izeneko KLARE ori ez ote da GLARE, ots, Galare? Asko dira bá "gala" enbor lez dar- maten tokizizenak: adibidez, Galartza, Galarreta, Galarra- ga... Azkeneko bi auek, ("G"="K"), "k" aurreniskiz ere idatzi rik ikusi dezakezu: KALARRETA, KALARRAGA.

– FLAGINA. Itz onen sustraiak, "Flagi" orrek alegia, ez du euskalduna izen daitekealaren itxura aundirik. Alare, "Flakiturri", Arabako Badaia mend; n itu rri eta lats edo errekatxo baten izena da. "Flamarike", berriz, Napa- rroa'n abizen euskalduna: Otxagabi'koa.

Larruki ontan latiñaturik datorkigu lekaime aren izena.

MUNNOZA. Izen ori, "Muñoza", "Muñoz"en ema- kera da, eta "Muñoz" ori "Muño"tik sortutako abizena, Euskalerrian beti oparo ibillia izan dana. Baita, orren beste era bat besterik ez dan "Muñiz" ere.

"Muñoa" bera, gaur bertan, Gipuzkoa'n, euskal -abize- na dugu.

MUNNATA Lengo itza bera da, bi itzen ezberdintasu- na emakera adierazteko eran bakarrik dagolako: Batak atzizkian darama bere emetasunaren adierazlea: "Munno- za". Besteak, bere sustraiean: "MUnnAta".

Monnia. "Moña" ezpairik gabe euskaldun aien ezpai- ñetan. Esan dugun lez, "O" oso errez "U" biurtzen dala- ko, "Moña ori "Muño'ren emakuntza izan daiteke, Badu beraz oraintxe agertu ditugun "Muñoza" ta "Muña- ta"rekin zer ikusirik. Izan ere izen bera bait da.

– Ginta. ¿Nork esan lekaime aietako baten izen ori, JINTA, euskalduna danik? Bañan "Jinza" (Jintza?) 1527 Sebillan'n lanean zebillen irudigille ta arkitektu euskal- dun baten abizena zan, eta "Jineko Nagusia" eta "Jineko Txike'ra", Deusto'n bi baserri dira.

Ortiz gaiñera Jin euskal toki ta giza-izen askotan ager- tzen zaigu: "Jin-ortze" Zizurkill'en lats edo erreka txiki bat, "Jin-erradi" Bizkai'ko Foru'n leiza bat. Leiza ospe- tsua, bertan brontze edo burniori-garaieko aizkora bat eta erromateko "Fortuna" ("Zori") izeneko jainkemearen irudi bat agertu bait zaizkigu.

Numadonna. "Numa'z eta "Donn"z osoturiko izen bikoitza da lekaime onek zeramana. "Dorna"z goraxeago mintzatu naiz. "Numa"k emen zer adierazi dezakean ez dakit.

Numa, latiñezko izena da: Erroma zarreko bigarren erregearen izena: Numa Pompilio. Euskalerrian e rromata- rrek errege aren omenez izendatu zuten Numancia Iber- mendietako Garraj, edo Garai, uri au menderatu zutenean.

Danadala, gaurregun Euskalerrian, Numereta Napa- rroa'ko Arriasgoiti'n tokiizen bat da, Numisaran, XVI

mendean, 1526'ean, Bizkai'ko errejidore baten abizena eta askoz leenago, NUMU, X mendeko gizakume euskal- dun batena.

UMMA. "Numa" ikusi dugu oraintxe. ¿Biak izen bat bera ote dira? Ez da erreza jakitea. "Uma", "Z" aurreniz- kia galdu zaion "zuma" dala diotenak badira. Ez dakit bá...! Danadala, asko dira "uma" sustrai-duten izenak. Oroj dezadan bat: Umandi, Araia'ko mendi baten izena eta Euskerazaintzako akademilari ta idazle yayoa izan zitzaigun Urrestarazu'tar Andoni'ren izengoitia.

TODA. Dokumentuetan latiñez TOTA. Euskale rriko eme-izen zarra da. Larruki ontako au izango da noski dokumentuetan agertzen dan zarrena. Gero maiz aurki daiteke erregiñ eta emazteki ospetsuen izena lez: Emazte- kj aietan ospetsuena, ezpairik gabe, Larraun'go TOTA Aznarrena, Napparroa'ko erregiña, politikolari, diplomazi- larj eta baita buruzagi bezala ere X mendeko gure emaku- merik bikaiñienetakoa.

Beste Tota bat, Tota Galindo'rena, X mendekoa, II Galindo Aznarrena Aragoi'ko kontearen alaba, ezkontzaz Gortza-Ibar (Ribagorza)'ko kontemea izan zan. Tota Biota'koa, XII mendean Laburdi'ko Bizkontemea; eta, XII mendean au ere, Tota Lope Enekorena Bizkai'ko Jau- naren alaba, Lope Gontzalorena Araba'ko kontearen emaztea.



Cesárea de la reina Urraca, citada por el cronista medieval Rodrigo Ximénez de Rada.

Ref. Luis del Campo, De la crónica medieval. Interpretación médico-istórica.

Urraka. Au ere eskierki ema-izen euskalduna da, gero emendik at aski zabaldu zana. Au rreneko aldiz dokumen- tu ontan dakusgu. Gero, Euskale rri osoan sarritan izan zitzaigun emakumezkoen izena.

Ala, Urraka zeritzanIX mendean 1 Gartzia Enekorena Napparroa'ko Erregearen emazteak. Ez dakigu ziur zer gudamoetan, baiñan Rada'ko Ximenez goigotzai edestila- riak dioskunez, borrokaldi batean, ja zazpi illabetez aur- dun zegoalarik bularrean zauritua izan omen zan Urraka ori, eta "erdj; illik baiñan oraindik bizirik", "morti proxi- ma tamen viva" antxe bertan zaldun batek egin omen zion "zesar-ebakuntza".

EDESTIA

IX mende ortan bertan. Urraka izan zuan izen I Santxo Gartziarena'ren lenen emazteak ere.

X mendean Urraka zan Fernan Gontzalorena Gaztela'ko Kontearen alaba. Ez dezagun aztu Gaztelerriko lenen konte aiek oraindik odolez euskotarrak eta elez euskaldunak zirala. Gaiñera, Urraka onek euskalduna izan zuan bere ama, Naparroa'ko printzesa, bera ere izenez Urraka, Naparroa'ko I Gartzia Santxorena'ren alaba.

XI mendean lenen urteetan Urraka zeraman izen II Gartzia Santxorena eta Ximena Naparroa'ko errege-erregiñen alabak. Leon'go erregiña izan zan V Alfontso'rekin ezkondu zalako.

Mende ortan bertan beste Urraka bat Gartzia "Naxerakoa" Naparroa'ko erregearen alaba izan zan.

XII mendean gero ugari dira Urrakak aure lurraldean eta gure inguru guztietan. Ala, Leon'go erregiña zan mende ortan Urraka Loperena, baiña Lope Diaz Bizkai'ko Jaunaren alaba.

Orain, Urraka abizena da Araba'n eta Naparroa'n, eta abizen lez, Urraga'ren aldakuntza omen da. Baleike, "K" eta "G" errez alkarr-aldatzen diralako.

Sancia (Euskerari dagokion agoskeraz, Santxa), Santxo Akitani euskaldunaren sortutako izen euskaldunaren emakera.

Gaur, bai Santxo eta hai Santxa abizen lez oi dira erabilliak; ugari gaiñera, baiña antziña artan izenak ziran, ez abizenak.

Izen zaarra da Euskalerrian. VIII mendean Lupo Santxorena "Dux Wasconiae", ots "Baskoni'ko Dukea" zan eta, eta IX garrenean baita bere semea ere: Santxo Santxorena.

972'ean, berriz, Santxo bat, Iruña'ko gotzaia.

IX mendean Santxa bat Jimeno Gartziarena Araba'ko kontearen emaztea zan.

X mendean beste Santxa bat, Naparroa'ko I Santxo Gartziarena'ren eta Tota Aznarrena'ren alaba, Leon'go erregiña, eta Araba'ko eta Gaztela'ko konteamea izan zan. Iru senar izan bait zituan: Leon'go II Ordoño; Albaro Arrameliz Lantaron'go Konte Arabarra' 925'z gero Fernan Gontzalorena, Gaztela'ko kontea.

Done bat ere badute Santxotarrek aldareetan. Santxo Donea, arabitarrek Araban baitutako mutil gaztea, Kordoba'ra katigu eramana eta an oraindik mutil oso gaztea zala ezpataz martiri erailla. Bere gogo-zuzendari eta adiskide aundia izandako Doneeulogio'k eman zizkigun martiri orri-buruzko albisteak.

Santxez bat ere, "Beato" edo "Zoriontsu" lez, aldareetan dago. Mixiolaria izan zan eta Brasill'en martiri erailla.

Iru dira, berriz, "Zoriontsu" lez aldareetara igo diran Santxak:

Santxa Alfontsoarena. Leon'go IX Alfontso erregearen sasialaba. Lekamea, Alargundu zan ezker, 1271'ean il zan arte.

Santxa Sizili'ko Erregiña II Karlos aita il zitzaion ezker. Senarra illik, izenez aldatu, ta, Klara izena artuz, berak eraikitako lekaimetxe batera sartu zan. 1345'ean il zan.

Santxa Portugal'ekoa, erreñu ortako I Santxo'ren alaba. Au ere berak sortutako lekaimetxe batera sartu zan

inguruko basoetan bizi ziran emakuine anakoreta edo bakartiak lekaimetxe artara bilduz.

"Genealogía" edo "belaunondokotzaren azterketa"n oitutakoek diotenez "de Sancho proceden Antso, Antxo, Sanz, Sanzio, Santxa, Sanso, Sants" (Enc.Gnl. I lustr.País Vasco).

Scemena, gaurregun Jimena, "nombre personal vasco" omen dan Jimeno'ren emaketa (ib). Ugari ibillia antziña-ko euskaldunen artean.

Jimeno izan zuten izen IX mendean "Naparren Dukeak", Igal'eko lekaidetxearen abatak eta Iruña'ko gotzai bik.

X mendean Jimena zeritzan Naparroa'ko Erregiñak, Gartzia Santxorena'ren emazteak. Eta, XI'ean, Gartzia "Naxerakoa" errege naparraren alabak. Mende oietatik onuntza maiz agertuko zizu eme-izen ori antziñako emakumeen artean.

— Gometiza. Au ere emakeratze bat dugu. "Gomez"en emakuntza. "Gomez" abizen ugari bat da, "Gome"tik sortua. Euskalduna ote da? Euskalduna da beintzat bere sustraia: "Gomea", Araba'ko Zioiti'n tokiizen bat bait da, eta "Gome" sustrai duten tokiizen eta gizaizenak asko bait dira.

Adibidez, "Gomeano" Enkarterriko tokiizena; "Gometxa" Araba'ko erri bat "Gomegga" erri orrek 1025'ean Kukulla'ko Burnibarren larrukian daraman izena...

Ona berriz zer dion "Gomen"i-buruz EnC.GnLlustr.País Vasco'k: "Entra en composición de algunos apellidos al parecer con el sentido de "autoridad" o "cargo" quizás relacionado con "encomienda". Nork jakin! Abizen askotan ezezé, tokiizenetan ere sartzen bait da.

"Gaztelera" ain ugaria dan Gomez abizenak, maizenik, "Z" bat darama atzizki. Beste batzuetan "Z" orren orde, "S", (Días), edo "BZ" (Perez), "ES" (Garces), "IS" (Peris), "IZ" (Sanchiz).

Atzizki oiek danak —"IS" da zarrena dokumentuetan atzizki bat bera dira: jatorriari dagozkionetan norengandikotasuna, prozedentzia, adierazten duana. Orregaitik "Perez", "Perurena" itzuli izan da Naparroa'n.

Baiñan ez zuan agian itzulpenaren bearrik. Kezketan bait nabil aspaldiz gero, atzizki ori, bera ere, jatorriz euskalduna ez ote dan. Ez da beintzat latina, ez da germaniarra, ez da arabiarra. Ontaz ordea beste batean mintzatuko naiz. Kezka ortan murgildurik ibiltzeko badut bá arrazoirik aski.

Azkenik, larrukian, lumalariaren izena: "Luponi presbiter hū omnes roboravit In Cristo": "Guzti ori Kristo'ren izenean Lupo bereterrak sendotua".

"Lupus", latinez, euskerazko Otsoa da, Euskalerrri Zarrean oso-ugari erabillitako izena.

Garrantzi txit aundiko albiste geiago era badu larruki onek. Oiek ordea, edestiaren alorreko albisteak diralako, idazten ari naizela solasaldi onen asieran esan dizudan liburuan jorratu eta aztertuko ditut.

LATIEGI'tar Bixente

GANGAILLENA

Zein ederra zan, izan be, Josetxu Mendiguren'go Patxi ta Malen senar-amazteen semetxua. "Au da umearen ederra" iñoen ekusen Quztiak. Malen, ume eder aren ama bildur zan, ainbeste eder esate ta begiradak umeari begizkoa egin etc-ekioan.

Sorgin urteierako atso zital bat bizi zan areinetik ez ain urrun eta, ari be eldu ckion aren, Mendiguren'go seiñaren, entzutea; eta, berekautan esan eban: ikusi ba-dadit ikusi, neuk ondatu eta ulduko dot, betiko, aren, ume eder aren edertasuna! Bai orixe! Artu eban sorginkeriak egiteko erabilli oi eban uientua bonbiltxu baten eta, beste zeregin barik abiau zan, aize-epela, batera ta bestera, eskutuka, be-ira, iñok igarri barik, ederra zala entzutea eban umea nun ikusiko. Luzaro ebillan ara ta ona, etxenondotik ur-xamar, urduri, eta, alako baten, seiña besoetan ebala etxetik urtetan ikusi eban Madalen. Bestela bai-litzan urreratu ekion eta, "au umearen ederra" esan eutsan, guzurrezko irribarrea ezpanetan ebala ta, umearen amak igarri barik, umetxua laztantzen ebalakoan, bere sorgin-uentu zitalaz igutzi eutsan seiñari aurpegian.

Ederretan be ederra dala entzutea izan dot eta ikusi dodanez gero pozik naukazu ba, anderea, seme ederraren jabe zara izan be-ta: Agur ba, urrengorartean.

ʻBegizkoa ez dala, biotzekoa ba egin dausat ume eder orreri ta laster ziztrinduko dakioe curen kutuntxu ori, eta nire uientuak dagoan baiño erkiñago egin ez ba dagi, sakatzak aterako dautsadaz neure amar atzokaz" esan eban bere sorgin-atzazal luzeeri begiraturik, ukabilla gorrotoz esitututen ebala.

Arik egun batzuetara umeak aldakuntza aundia egin eban: Goibeldu egin zan, jateko gogorik be ez eukan, begikunea be moteldu egin ekion eta pozezko umea zana ziztrin-ziztrin egin izan zan eta edozegaitik negarrez asten zan.

— Esaten ncuau nik Patxi— esan eutsan Madalen'ek senarrari. Esaten neuan, begizkoa eginko yautzakela gure umeari; ikusten yuen guztiak esaten yautzen, ba, "au umearen ederra!" Eta gero, Basarte'ko sorgin maltzur arek egin yautzian mozu ziztriña... Sorgin zantarra alako!

— Kendu egizana olako burutapenak, Madalen. Begizkoa ta olangoak sorginkeriak dozana-ta. Gexoen batek elduko yautzana.

— Osasuntsu egoan umea egun baterik bestera olan jausi? Ez gizona. Begitu ta begitu, begizkoa egin yautsek. Zigur naiagok. Ete cren atso sorgiñaren ikutua...

Batari itaundu eta besteari galde, Madalen'ek barruntan eban ba-zala gizon bat, ez andik ain urrun, Gantzabaltontorraren beste aldean. Araindi basetxean-edo, begizkoa osatuteko gangaillena egiten, zantiretuena egiten eta olako zerak ekizana.

— Bai. Ez nekian olakoak egiten yekianik baia bai: eza-gututen yonat gizon ori, Peru deritxola Liste yonat. Bitarte baten joan eta gure umeari gaingaillena egiten etorri daitela esan beariko dautsak ba.

— Bai anderea. Joango nona, datorren igandean-edo.

"Nik neuk, gangaillenari ta olakoeri ez dauset emoten federik baiña joan egin beariko joat, gure Madalen baretu daiten" marmartu eban agiñartean".

— Domekara orduko be joan einteke. Gure Josetxu ez yagok ba ondo.

— Barikua dona gaur eta ez adiña estutu anderea, egun bi edo iruan ez yakona txarragorik egingo-ta.

— Zigur, gero, igandean, Patxi. Geure erruz semea ondatu ez dakigun.

— Bai Madalen, zigur-zigur. Domcka atsaldean abiauko nona eta astelenean emen izango yonagu. Eta, gangaillena edo dana dalakoa... (sorginkeria berbeak ie urten izan eutsan) egingo yautsana eta beingoan osatuko yakuna geure Josetxu kutuna.

— Tira ba. la geure umetxua beingoan sendatuten dakigun.

— Oiñez be joan naitekena emendik ara dagoan bideagaitik; ala zaldian joango ete-nona?

— Euk gura doanez; baiña, zaldi-ganean oba izango doala nik uste. Taiuzko biderik bere ez yagok basoan eta, ba-dakik, zaldiak eta astoak arantz joaten direan toki berberetatik onantz be egite yuena, illun egon-arren eta bein baiño jpro izan ez direan bidea izanarren be, zuzenzuzen, ostoporik egin barik biurten direana.

— Bai, laztana. Olantxe dona. Zaldi ta astoak zuurrak dozana orretan gure aldean. Guk gizakiok ez dogun berezkoa yaukena, orretarako, Jainkoak emon da, guri, gizakiori, lagunduteko. Bide-kurutze baten norantz jo ez dakigula gagozanean be, astoak eta zaldiak zigur jakiten jabek norantz artu, bein igaro izan direan bidea baldin ba-da.

Txalmatu eban, Lagun curen zaldi ederra, artu eban, gabetan etxetik urte-bearra izaten ebanean, zeozer jazoko be, erabilli eroian gorosti-makillea atoztean eta gertu egoan urtetako.

— Guztiz illundu baiño len etxera eldu aiten garaiz urten, gero!

— Bai, Malen. Alegindoko nona.

— Ba dakik ba. Barriketan as; ezkerro, zuoi gizonoi igarri barik joaten dakizuez orduak, eta gero...

— Bai anderea. Ez egon arduratan: garaiz urtengo jonat.

— A, ta lenbaitlen etorteko esango dautsak, bero. Patxi, oba txakurra etxean isten ba-dok. Etxean bakarrik gagozanean lagun ona izaten dok ba, txakurra.

— Bai, Malen. Deitu txakurrari. Gelditu daitela etxean.

IPUIN-SARIKETA

Abiau zan ba, Patxi, basoak-zear, curen zaldi otzaren ganean eta, beingoan eldu izan zan Araindi'ra.

Ez zan agiri iñor etxe-inguruetan baiña txakurraren ausietara beingoan agertu ekion emakume bat ateetara. Arritu egin izan zan etxeko anderea, zaldi gaiñean etorran gizona nor edo zetan etorri zatekean eurenera-ta.

— Arratsalde on, anderea: Etxean da gizona?

— Bai, ba. Emen da. Lotu egizu zaldia arizpe orretan, berealaxe urtengo dau-ta.

— Kaixo, gizona. Ondo etorria. Zer zakaz gurera?

—Ara, ba, esango dautsut. Osasuntsu ta ederra geunkan umea eta, begizkoa egin izan dautsoe, antza, eta zuk daki-zula gangaillena egiten jakin izan dogu eta, bitarte baten elduko ba'ziña...

— Bai gizona. Joango ez naz ba. Zu zeu, Mendiguren basetxekoa zara. Aurpegiz ezagutzen zaudaz... Goazan eskatzera ta antxe egingo dogu berba. Sartu zirean barrura ta, jasarri zaitez txixillu orretan nasaj, esan eutsan.

Anderea —esan eutsan emazteari— anderea, atera egizuz gaztaja ta ogia ta or eskillara-pean daukagun ardaoa eta baita, gastaña gorringoak be ardaoa edateko onak dira-ta.

— Neu be gastaña gorringoen zalea nozue eta sarri eragiten dautsat danboliñari, neguko gabetan, Kirrin eta karran...

Jan eta edan egiten eben bitartean, bateko ta besteko jazokizun asko arakatu ebezan, gogaro onean.

— Eta Peru, zelan egiten dozue gangai lлена edo dana dalako ori?

— Geure aita zának irakatsi eustan eta askori egin izan dautset; bai gizakie ri ta baita abereeri be. Bai, gizona, abereeri be egiten dakioe begizkoa curen edertasunari begira ta begira ibilli ba-gadiz.

— Ez neban uste olakorik.

— Bai gizona, eta, gaingaillena egin eta osatu egiten dira.

— Egundo olakorik!

— Gaingaillena ta zantiratuen ta olangoak sorginke-riak zireala uste neban, ba, nik neuk.

— Ez gizona. Nik zantiretuarena ta gaingaillena eginda, gizaki zein abere asko sendatu izan dira.

Baiña, Patxi, alkarreganako ingeraz edo, zuka berba egiteari itxi ta egin daigun itanoeraz, dok eta eztoz gure errian esan daroaguneaz.

— Bai. Peru. Zuzen zagoz. Lagun-artean beti egiten dogunez. Alkarreganako uste onik ez daben jakituntxuak jardun daroaz zuka txatxukeriaz.

— I. Ta noz etorri einteke gurera? Gure anderea artega jagok umea alan ikusita...

— Biar bertan joango nakizue. Biar atsaldean.

— Gure Malen'ek, nire emazteak, artuko yok poza, an ikusi agianean.

Igon eutsan zaldiari ta gogaldi onez etorran etxerantz, basoak-zear, illun abarrerako eldu gura eban, ba, etxaldera, emaztea arduratan egon ez zeiten.

Basoak igaro ta etxerako bide ziorrera eldu izan zanean aremaitakoen kanpai otsak entzun ebazan geratu zaldia. aitearen egin eta iru Agur Mari otoitz egin ebazan, oiturea ebanez eta, "aurrera zaldia, lazter gozak etxean-da" esan abere otzanari eta guztiz illundu baiño len eldu zan etxera.

— Gabon Malen. Emen nozu gautu baiño len.

— Bai. Arduratan egon nok eta otoitz be egin yoat onez eldu aiten.

— Biar etorriko dala esan yaustana eta, zigur elduko dona, gizon zintzoa dona-ta. Gangaillena egin dagionean beingoan, egun gitxi barru ikusiko genduala umea, len baizen zoriontsu, esan yaustana.

Atsaldeko irurak aldean eldu ekioen gogotsu itxaroten eben gizona.

— Sartu barrura, ama ta umea eskatzean yagozak-eta.

— Arratsalde on anderea!

— Baita zeuri bere.

Berba-alditxu bat egin ebanean: "Emen daukagu geure seintxu laztana, len osasuntsu ta pozezkoa genduana; guztiz erkinduta, ezetarako odore barik"— Esan eutsan Madalen'ek.

— Ez estutu, anderea. Beingoan lengo senera etorriko da.

Artu eban seiña altzoan, atera eban sakeletik beruntxatal bat eta, urtu egin eban sartagin baten. Orretarako ekizan otoitz eta beste egikizun batzuk ixilpean egin, eta, beruna urtu eban sartagiñera ixuri ur apur bat eta edaten emon eutsan umeari. Laztandu eta amaren besoetan itzi eban "beingoan len baizen eder eta osasuntsu ikusiko dozue zeuon semetxu maitea" esan -da. Eta berealaxe loak artu eban Josetxu.

— Etxerako ordua dot eta agur, ba urrengorarte. Ondo izan eta eskerrik-asko ain arrera ona egin daustazuelako.

— Peru, ordaindu egin bear dautsugu zeure lana...

— Olakorik esatea be! Olako egikizunak ez dozak ordainkizunagaitik egiten Patxi. Urkoari mezedo egiteko beti izaten nok, ba, ni gertu.

Arik egun batzuetara, guztiz sendatuta, pozik ebillan umea. Auzoak be poztu egin zirean Basaguren'go umea osatu zala yakin ebanean.

Basarte'ko atso zorgiñagana be eldu zan umearen osakuntzaren barri eta, "alegin guztjak egingo dodaz ume ziztrin ori betiko ondatu daiten" esan eban berekautan. Ez zan auzartu, baia, Mendiguren-aldera urratzen.

Arik urtebetara, etxaburuko soloan ebillan Patxi sekulebedarra ereiten eta, erroj zaar batek aztertu ta aztertu lorrindu egiten eutsan ereiten ebana.


Erroj (bela) madarikatua! Urreratu ekionean "neuk ondatuko aut" esan -da, aukulua jaurti ta egoa auzi eutsan. Egoa tatarrez ebala, kaak eta kaak iges egin eban erroiak. Ai, baiña, arik egun batzuetara besoa ausita agertu izan zan Basarte'ko atso-sorgiña.

Orduantxe konturatu izan zirean, guztiak, a Basarte'ko atsoa, benetako sorgiña zana.


AURRE-APRAIZ'tar Balendin




7 ezbardintasun aurkitu.



Begoña'k Mikel'izer erakutsi gura dautson jakin gura ba dozue, batu zenbakiak




Arrainak ikusten dabenezagaz ez dagoz pozik. Zer dan jakiteko, margoztu zatitxuak, margo ezbarđinakaz.



EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATOK EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat artuten dogu, geure erri onen arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik lagunduten deusegu gogo osoz, geure nortasun berezia indartuten deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten deusegu, kultur adierazpenen artean, gure ezaugarririk gorena dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa